



Kontratuen Legearen Testu Bateginaren aurka ez dagoen neurrian eta indarrean badago 817/2009 ED indarrean sartu ondoren; osagarri gisa, zuzenbide administrazioiko gainontzeko arauak aplikatuko dira eta haiek ezean zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioiko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 21.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

## **BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

### **Horniketa- eta instalazio-kontratua**

Xedea: Gipuzkoa plazako jolasgunean haur jolasak hornitzea eta muntatzea.

Prozedura negoziatua publikitaterik gabe

### **1.- KONTRATUAREN XEDEA.**

Kontratu honen helburua da: Gipuzkoa plazan ipiniko diren haur jolasak erosi eta instalatzea, gaur egun dauden haur jolasak kokatuta dauden eremuan. Baldintza-agiri honen I. eranskineko planoan jolas-eremuaren kokalekua zehazten da. Kontratu gauzatzeko agiri honetako ekonomia- eta administrazio baldintzei eta udal-teknikarien ildoei jarraituko zaie.

### **2.- HAUR-JOLASEN EREMUAREN EZAUGARRIAK.**

#### **2.1. Aisialdi-balioak eta balio sozialak.**

Ekipamenduak estimulu hezigarriak eskainiko ditu, beraien garapen fisikoa eta mentala bultzatuko ditu, aisia eta irudimena indartuko ditu eta gaitasun motorrak ere sustatuko ditu.

Jolas-eremuan, haurrek hainbat gauza egin ditzakete: igo, jaitsi, begiztatu, koordinatu, besteekin partekatu, zabuan ibili, zintzifikatu, kulunkatu, sartu, gerturatu, babestu, komunikatu...

Era berean, balioetsi egingo da proposamenetan elementu bereziak sartzea, ahalmen urriko haurrek jolasetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Lizitatuak jolasgune bakoitzean jartzeko proposatuko dituen elementuak benetan egokiak izan beharko dira jolaserako.

#### **2.2.- Eragin-eremua**

Gipuzkoa plazan kokatuko da jolas-eremu berria. Gaur egun bi jolas-eremu daude bertan. Kendu nahi diren haur jolasak, gaur egun, laukizuzen itxurako bereizitako bi eremutan daude.

Haur jolasen eremuaren lursailak 196 m<sup>2</sup> inguru ditu gaur egun, gomazko baldosen azalerak lursail hori zehazten du. Lehendik dauden jolasak kendu eta horietako batzuk Aretxabaletako Udalak errekeratzea nahi ditu.

- Jolasek egokiak izan behar dute Otik 12 urte bitarteko haurrentzat.

#### **2.3. Jolas-motak eta jolaserako adinak.**

- Gutxienez 25 haurrentzako tokia izan beharko du jolas-eremuak.

- Jolas-eremuaren %20k aproposa izan behar du 3 urtez beherakoentzat.

- Jolas gunean gutxienez jolas konbinatu bat (txirrista, gora igotzeko sare edo antzekoak...) eta zabu bat (aulki laua/saskia edo habi itxurako zabua) egon beharko da.

- Haur-jolasei kartel batzuk jarriko zaizkie, materiala sendoz eta erabilera baldintzekin ez aldatzeko modukoan eginak. Ahal dela piktogramak erabiliko dira eta, euskarazko eta gaztelarazko argibide hauek izango dituztenak, euskarari lehentasuna emanaz:

- "Guraso eta laguntzaileak dira ekipamendua behar bezala erabiltzearen arduradunak."

- "3 urtetik beherakoek helduekin egon beharko dute beti."

- "Jolasak, gomendatutako adin tarteko haurrek bakarrik erabili ahal izango dituzte."

- Erabiltzeko gomendatutako adina.

- Udaltzaingoa eta matxuren berri emateko telefonoa. 943711862 Aretxabaletako Udala

- Istripurik gertatzen bada, deitu 112 zenbakira.

- Debehatuta dago txakurrak sartzea



- "Ingurua garbi mantendu, mesedez."

Elementu guztiek fabrikatzailearen identifikazio plaka eraman beharko dute. Ekipamenduaren eta jolasen konbinazioaren diseinua nahi bezalakoa izan daiteke, eta nahi adina aldaera eskaini ahal izango dira, betiere eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa bakarria bada.

#### 2.4. Jolas-eremuaren itxura.

Jolas-eremuko elementu guztiak jarrita daudenean, jolas-eremuak itxura homogenea eta erakargarria izango du; ludikoa eta hezigarria izango da edukien aldetik.

#### 2.5. Proiektua.

Enpresa lizitatuak proposamenaren ezaugarriak, planoak eta fotokonposizioak txertatuko ditu proiektuan. Behar bezala definituko da eskaintzen den elementu bakoitza, bai eta haien babes-guneak ere. Erabiltzaile guztien neurriko jolasak jarri beharko dira.

#### 2.6. Segurtasun-zorua.

Segurtasun-zorua izango da jolas-eremu berriaren jardunbideetako bat, eta akabera jarraitua eman beharko zaio.

Jarduteko gunearen zorua erabat berritu beharko da; horrela, beharrezkotzat jotzen da jarduera gunea osorik gauzatzea, hau da, oinarriko kautxua eta azaleko kolorearen tratamendua ematea.

Bertan jarri beharko den segurtasun-zorua gutxienezko baldintza hauek bete beharko ditu:

- ..Zorua "in situ" ezarriko da eta 2 kapa izango ditu.
- ..Lehenengo geruza kautxu birziklatuzko txirbilezkoa eta poliuretano malguzko erretxinezkoa izango da, eta 30 milimetro lodi izango da gutxienez.
- ..Bigarren geruza masan koloreztatutako EPDM pikortez eta kolorerik gabeko poliuretanozko erretxinez egindakoa izango da, eta 10 milimetro lodi izango da gutxienez.
- ..Segurtasun-zoru jarraitua azaleran kokatuko da. Dagozkion maldak mantenduko dira, euriurak haiek jasotzeko gunerantz joan daitezten.
- ..Zorua HIC (erortze-altuera kritikoa) bete beharko du, UNE-EN-1177 Europako Araudiak jasotzen duena.
- ..Jolas-eremuko elementuek HIC ezberdina dutenez, zoru jarraituak lodiera ezberdina izan beharko du, UNE-EN-1177 Europako Araudia betetzeko. Horregatik, arrapala txikien bidez elkartuko dira lodiera ezberdineko zoruak. Arrapalek %6ko malda izango dute gehienez.
- ..EPDMren kolore-aukera zabalda izango da, eta gutxienez hiru kolore konbinatzeko aukera emango du. Bestalde, forma geometrikoak, irudiak eta marrazkiak jar dakizkioke segurtasun zoruaren amaierako akaberari; izan ere, eremuari hobeto egokitzen laguntzen du, eta itxura erakargarriagoa eta ikusgarriagoa hartzen du. Proiektuak zoruaren diseinu proposamen bat edo gehiago aurkez ditzake. Hala ere, Aretxabaletako Udalak aukera izango du koloreak eta formak aldatzeko.
- ..Ezari beharreko segurtasun-zoru jarraituak I eranskinen planoetan zehazten den gehienezko azalera horren perimetroa ezin izango du gainditu.
- ..Segurtasun-zoru jarraitua ezari aurretik obraren bat egin edo azalera prestatu beharko balitz, eta lan horiek ez badira eskainitako prezioan sartzen, argi eta garbi adierazi beharko da zer obra den eta zenbat kostako den. Kautxuzko zoladuraz gain, aukera egongo da bestelako zoru jarraitu motak eskaintzeko, betiere kalitate hobekoak badira eta baldin eta puntu honetan azaldutako araudia eta baldintzak betetzen badituzte.

#### 2.7 Lan osagarriak

Lehendik dauden haur-jolasak desmuntatu eta Udalak aukeratzen dituenak udal-biltegira eraman beharko dira (Basabe Poligonoa B-4). Desmuntatuko diren gainontzeko haur-jolasak eta kautxuzko zorua, lizitatuak dagoen hondakindegira eraman beharko ditu.

### 3.- ARAUDIAK, MATERIALAK, BERMEAK ETA ASEGUURUAK.

Erabiliko diren materialak egoki tratatuko dira, ahalik eta gehien iraun dezaten. Eskaintzen diren jolas eta egitura guztiak homologatuta egongo dira, eta araudi guztiak beteko dituzte. Arau hauek jarraituta egin



beharko dira: **EN 1176 eta EN 1177**. Derrigorrezkoa izango da arau horiei dagozkien ziurtagiriak izatea, eta gaian egiaztapen eta aitortza nahikoa duen organo eskudunak egindakoak izango dira.

Eskaintza egin ahal izateko, eta helburu delarik instalatu beharreko haur-jolasen segurtasun maila bermatzea, nahitaezkoa izango da TÜV ziurtagiriak (Geprüfte Sicherheit erakundeak eginak) edo Espainia mailako pareko egiaztapena aurkeztea eskainitako jolasetan, EN-1176 segurtasunerako araudi europarrari dagokiona, eta zoladura sintetikoa erabiltzen bada EN-1177 araudiarena ere bai.

Instalazioetan kalitatea lortzea xede delarik, eskaintzak egiten dituzten enpresek ISO 9001 ziurtagiria izan beharko dute fabrikazio eta instalazio prozesuko eragiketa guztietako kalitateko estandarrei dagokienez, eta ingurumeneko kalitatearen ISO 14001 ziurtagiria ere bai.

Nolanahi ere, araudi hau exijitu ahal izango da:

**UNE-EN 1176-1: 1.999**

Jolasguneetako ekipamendua. 1. zatia: Segurtasun baldintza orokorrak eta saiakuntza metodoak (1999/05/11).

**UNE-EN 1176-1/A1: 2.002**

Jolasguneetako ekipamendua. 1. zatia: Segurtasun baldintza orokorrak eta saiakuntza metodoak.

**UNE-EN 1176-1/A2: 2.003**

Jolasguneetako ekipamendua. 1. zatia: Segurtasun baldintza orokorrak eta saiakuntza metodoak.

**UNE-EN 1176-2: 1.999**

Jolasguneetako ekipamendua. 2. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta zabuetarako saiakuntza metodoak (1999/06/15).

**UNE-EN 1176-2/A1: 2.003**

Jolasguneetako ekipamendua. 2. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta zabuetarako saiakuntza metodoak

**UNE-EN 1176-3: 1.999**

Jolasguneetako ekipamendua. 3. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta txirristarako saiakuntza metodoak (1999/06/15).

**UNE-EN 1176-3/A1: 2.003**

Jolasguneetako ekipamendua. 3. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta txirristarako saiakuntza metodoak

**UNE-EN 1176-4: 1.999**

Jolasguneetako ekipamendua. 4. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta tirolinetarako saiakuntza metodoak (1999/06/15).

**UNE-EN 1176-4/A1: 2.003**

Jolasguneetako ekipamendua. 4. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta tirolinetarako saiakuntza metodoak

**UNE-EN 1176-5: 1.999**

Jolasguneetako ekipamendua. 5. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta zaldiko-maldikoetarako saiakuntza metodoak (1999/08/18).

**UNE-EN 1176-5/A1: 2.002**

Jolasguneetako ekipamendua. 5. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta zaldiko-maldikoetarako saiakuntza metodoak.

**UNE-EN 1176-5/A2: 2.003**

Jolasguneetako ekipamendua. 5. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta zaldiko-maldikoetarako saiakuntza metodoak.

**UNE-EN 1176-6: 1.999**

Jolasguneetako ekipamendua. 6. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta kulunketarako saiakuntza metodoak(1999/06/15).



**UNE-EN 1176-6/A1: 2.002**

Jolasguneetako ekipamendua. 6. zatia: Segurtasun baldintza berezi osagarriak eta kulunketarako saiakuntza metodoak.

**UNE-EN 1176-7: 1.998**

Jolasguneetako ekipamendua. 7. zatia: Instalaziorako, inspektziorako, mantentzelanerako eta erabi lpenerako gida.(1999/07/14).

**UNE-EN 1177: 1.998**

Jolasguneetan kolpeak arintzeko zoruen estaldura. Segurtasun baldintzak eta saiakuntza metodoak (1998/07/08).

**UNE-EN 1177/A1: 2.002**

Jolasguneetan kolpeak arintzeko zoruen estaldura. Segurtasun baldintzak eta saiakuntza metodoak.

**UNE 147101: 2000 IN**

Jolasguneetako ekipamendua. UNE-EN 1176-1 araua aplikatzeko gida.

**UNE 147102: 2000 IN**

Jolasguneetako ekipamendua. UNE-EN 1176-1 araua ikuskapenean eta mantentzean aplikatzeko gida.

**UNE 147103: 2001**

Airez abaleko jolasgunea keta parkeak planifikatu eta kudeatzea.

**UNE 172001: 2004 IN**

Jolasguneak seinaleztatzea.

**UNE-EN 71-3:1996**

Jostailuen segurtasuna. 3. zatia: elementu batzuen migrazioa. Zuraren eta deribatutako produktuen iraunkortasuna.

**UNE-EN 351-1:1996**

Babes-produktuekin tratatutako zur trinkoa. 1.zatia: Babes-produktuen barneratzeen eta erretentzioen sailkapena. Zuraren eta deribatutako produktuen iraunkortasuna.

**UNE-EN 351-2:1996**

Babes-produktuekin tratatutako zur trinkoa. 2. zatia: Trataturako zura analizatzeko laginketa gida.

Jolasak eraikitzeke erabilitako zur guztiak erantsita izan beharko dute zura nongoa edo nondik ekarria den egiaztatzen duen agiria, horrela kontrolik gabeko mozketetatik datozenak saihesteko. Ez dira onartuko zur tropikalekin diseinatutako jolasak.

Zura autoklabean tratatuko da, CCA motako gatz hidrosolubleekin, eta 4. arrisku-maila kontuan hartuta (EN 335.2.92). Inpregnazioa beti produktu ekologikoekin egingo da tratamenduetan.

Gainazalak leunak izango dira, eta behar bezala lixatuta egongo dira.

Lurpeko sartu beharreko zatiak egoki tratatu beharko dira, zura ustel ez dadin.

Panelak presio altuko kontratxapatu xaflatuz egindakoak izango dira (HPL) edo kalitate handiko kontratxapatuz, fenol-erretxinarekin xaflatuak, klima-aldaketei eutsiko dietenak.

Jolas-egiturek denbora igarota ere segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzeko moduan eginak izan beharko dute.

Pieza metaliko guztiak herdoilgaitzak edo elektrogalbanizatuak izango dira. Beroan galbanizatutakoak ere izan daitezke, baldin eta UNI5744/66 arauak jarraitzen badira, eta 70 mikrako gutxieneko zink lodiera badute, metro koadroko 500 gramo zink gutxienez.



Plastikozko elementuak birziklagarriak izango dira. Pinturak eta bernizak, berriz, uretan disolbagarriak.

Inolaz ere ez da onartuko fabrikazioan edo muntaketan erabilitako materialak edo aplikatutako tratamenduak toxikoak edo kutsagarriak izatea. Tratamendu horien ziurtagiriak erantsi beharko dira.

Enpresa lizitatzailerik beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, ISO 9001 eta 14001 arauetara egokitzen diren ala ez adierazteko.

Erabilitako materialek 2 urteko bermea izango dute gutxienez, materialak kokatzen direnetik kontatzen hasita. Bermeak dirauen bitartean, kontratistaren esku geratuko dira konpontze eta mantentze-lanak, baldin eta instalazioak egoki erabiltzen badira. Halaber, enpresa esleipendunak berme-ziurtagiria egin beharko du, eta bertan zehaztu beharko du zer material erabili den, nola tratatu den materiala, eta zer produktu erabili den; bai eta zazpi urteko bermea dutela ere ustelduraren eta korrosioaren aurka.

Enpresa lizitatzailerik Erantzukizun Zibileko Aseguru bat izan beharko dute, hirugarrenengan sor daitezkeen kalteak estaltzeko, berme aldia indarrean dagoen bitartean. Aseguruaren ezaugarriak aurkeztutako eskaintzan zehaztu beharko dira.

Hornidura esleitzeko kontratuaren baitan sartuko dira bai Ekonomia eta Administrazio Baldintzen Agiri hau, bai eta agiria osatzen duten dokumentuak ere. Kontratua esleipendunari helaraziko zaio, sina dezan.

Enpresa esleipendunak jolasak berrikusi eta doituko ditu instalatu eta bi hilabetera, ondo dabilzala eta iraungo dutela ziurtatu. Berrikuste eta doitze hori Udaleko teknikariek ikuskatuko dute, eta enpresak txosten bat egin eta eman beharko du ondoren.

Hiri-altzariei dagokienez, jarri beharreko elementuek irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak eta Arau Teknikoen 68/2000 Dekretuak adierazten dutena bete beharko da.

Halaber, prebentzioarako, segurtasunerako eta langileen osasunari dagokienez, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea aplikatuko da, Aretxabaletako Udalak jardueretarako beste enpresa batzuek edo langile autonomoak kontratatzen dituenean, berdin diolarik zer nolako kontratazioa den (kontratua, eskaria, eta abar), eta kontratazio horren berezko berezitasunak jasota, bai Obretakoak bai Zerbitzuetakoak.

1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazio eremuan sartuta dauden Eraikuntza Obretarako, araudi horretan ezarritakoa aplikatuko da.

#### Erreferentziako agiriak:

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa
- 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Arau esparrua berritzeko.
- 32/2006 Legea, urriaren 18koa, eraikuntzaren sektorean Azpikontratazioa arautzen duena.
- 39/1997 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena.
- 171/2004 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena.
- 604/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 19koa, 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, 32/2006 Legea eraikuntzaren sektorean Azpikontratazioa arautzen duena garatzen du.
- 337/2010 Errege Dekretua, martxoaren 19koa, 39/1997 Errege Dekretua, 1109/2007 Errege Dekretua eta 1627/1997 Errege Dekretuak aldatzen dituena.

#### **4- KOKAPENA ETA HORNIDURA-EPEA.**

Agiri honen I. eranskinean zehazten da non kokatuko den haur-jolasen eremu berria. Hornidura- eta ezartze-epeari dagokionez, jolasek jarrita egon beharko dute 45 egunean, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita.

#### **5.- BERRIKUSTEAK ETA MANTENTZEA.**



Hiru hilabeteen behin, gutxienez, enpresa esleipendunak jolas-eremu berria ikuskatuko du, bai begiz egiten diren ohiko ikuskapenekin, bai eta ikuskapen funtzionalekin ere. Ikuskapen horiei buruzko fitxak Aretxabaletako Udalari helaraziko dizkio.

#### 6.- AURREKONTUA.

60.000 eurokoa da deskribatutako hornidura kontratatzeko gehienezko lizitazioa, BEZa barne.

#### 7.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK. 100 puntu

Aurkeztutako proposamenak alderdi hauen arabera baloratuko dira:

##### A. MODU AUTOMATIKOAN BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK, HANDITIK TXIKIRA PUNTUATUKO DIRA: 20 puntu

###### A.1.- Eskaintza ekonomikoa: 10 puntu

Eskaintza ekonomikoa horrela baloratuko da:

puntuazio altuena lortuko du aurkeztutako eta onartutako batez bestekora gehien hurbiltzen denak, eta gainerakoak proportzioaren arabera puntuatuko dira. Ez da onartuko lizitazioko aurrekontuari %20ko beherapena baino handiagoa egiten dion proposamenik.

Kontratuaren prezioaren barruan sartuta dago unitateko prezioen zerrenda. Unitateko prezioak behar bezala banakatuta daude, eta kontratua gauzatzean horiek zuzenduko dute.

###### A.2.- Horniketa epea murriztea: 10 puntu

Esleitutako elementuen horniketa eta muntala gehienez 45 egun naturaleko epean eta gutxienez 20 egun naturaletan egingo da. Plegu honetako 4.puntuan adierazten den bezala, epea kontratua firmatzen den egunean bertan hasiko da kontatzen. Horniketa eta muntai epe murriztena eskaintzen duenak puntuazio altuena lortuko du eta aldiz, epe maximoa ematen duenak ez du punturik lortuko. Inolaz ere ez da atzerapenik onartuko esleipendunak emandako epean. Era honetara, eskaintzen den epe bakoitzeko eta proportzionalki dagokion puntuazioa izango da.

$$P = \frac{[(\text{epe max.} - \text{epe min.}) \times \text{puntuazioa max.}]}{[\text{Eskaintako epea} - \text{gutxieneko epea}]}$$

##### B. IRITZIAREN ARABERA BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK: 80 puntu

###### B.1. Eskaintako proiektua: 70 puntu

- Jarduera ludikoa eta estetika: segurtasuna, dibertigarria, berria eta funtzionala izatea elementu askok in eta ezberdinekin jolasteko aukera izatea, kolorea, ikusgarritasuna eta ingurura egokitzea.

- Orijinaltasuna: proposatutako elementuak herrikoa gainontzeko jolas eremuetan ez egotea baloratuko da.

- Erabiltzaile kopurua.

"Gutxieneko erabiltzaile kopuru minimoa", hau da, jolaseko elementu guztiak okupatuak daudela kontatuko den erabiltzaile kopuru minimoa.

- Mugikortasun arazoak dituzten haurrek jolasetan parte hartzeko aukera balioetsiko da.

- Udalak mugatutako azaleraren barruan, jolasgune berriaren azalera handia izatea balioetsiko da.

- Aurkeztu behar den dokumentazioaren kalitatea (fotomuntaiak, planoak, xehetasunak...)

###### B.2 Eskaintako ekipamenduaren kalitatea: 5 puntu

Eskaintako materialak balioetsiko dira, bai eta zer tratamendu duten, bandalismoaren aurrean iraunkorrak diren eta baita zer akabera duten ere.

###### B.3 Mantentze-zerbitzua eta bermea: 2 puntu

Mantentzerako proposatzen den zerbitzua balioetsiko da, agiri honetako 5. puntuan dioenaren arabera eta mantentzearen epean erabiliko den prozedura zehaztuta (berrikuspen kopurua gehitzea, pieza berriak jartzea, ikuskapenak,...).

Ondorengo materialen berme osagarria hartuko da kontuan: osagai metalikoak, plastikozko osagaiak, tratatutako egurra, kontratxapatua edo HPL, segurtasun zoruak eta ordezeko piezen eskuragarri (stoc) izatearen bermea.

###### B.4 Hobekuntzak: 3 puntu



Udalak interesgarritzat jotzen dituen hobekuntzak balioetsiko dira : hirialtzariak, bizikletak lagatzeko euskarriak...

#### 8.- AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

- A) Jolas-eremu horretarako proposatutako aukeraren edo aukeren oinplanoa eta altxaera 1:200 eskalan edo handiagoan, haur-jolasak, segurtasun-zoruak, adierazpen-kartelak eta abar, nota banatuko liratekeen xehe azalduta.
- B) Plano kotatuak, eta horietan argi zehaztu beharko da proposatutako elementuen tipologia, mota eta neurriak, eta horien gutxienezko segurtasun-neurriak ere bai.
- C) Aurkeztutako eskaintza argiago ikusten lagunduko duten katalogoak, koloretako argazkiak edo ordenagailuko irudiak.
- D) Zimendatze mota.
- E) Jolas bakoitzaren fabrikazioan erabilitako materialen definizio eta deskribapen osoa.
- F) Segurtasun-zorua motaren eta osakeraren definizio eta deskribapen osoa, neurriak, ezaugarriak eta instalatzeko era.  
(Lanak amaitzen direnean, "in situ" entseguak egin eta dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da indarrean dagoen araudia betetzen dela ziurtatzeko (UNE-EN 1177: Jolasguneetan kolpeak arintzeko zoruen estaldura. Segurtasun baldintzak eta saiakuntza metodoak.))
- G) Jarri beharreko kartel motaren definizio eta deskribapen osoa, neurriak, ezaugarriak eta instalatzeko era eta ainguratzea.
- H) Zerbitzuaren eta jolasen eta zoruaren materialen aseguruak eta bermeak, baldintzak argi zehaztuta.
- I) Haur-jolasetarako, zorurako, hesirako, adierazpen-kartelerako edozein ordeko pieza hornitzeko bermea, gutxienez 10 urteko epean.
- J) Eskaintako jolasak indarrean dagoen lege araudira egokitzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, fabrikatzaileak ekipo bakoitzerako erabilitako izenen arabera, UNE-EN 1176 eta UNE-EN 1177 arauak betetzeko. Ziurtagiri originalak aurkeztu beharko dira edo bestela konpultsatutako edo egiaztatutako fotokopiak, eta lehiaketarako behar diren gainerako agiriekin batera emango dira.
- K) Lizitatzailuek, eskaintzarekin batera, jolasetako bakoitzaren zatiak aurkeztuko dituzte, ordeztu litekeen pieza bakoitzari dagokion erreferentziekin edo kodeekin, kontserbazio faseetarako.
- L) Eskaintzan barne dauden edozein eratako hobekuntzak.
- M) Mantentze osoa egiteko plana, gutxienez bi urterakoa (materialak eta eskulana), hiru hilero bisitekin eta dagozkien txostenekin.
- N) Jarri beharreko jolasen eskaintza ekonomikoa, sailka banatuta: haur-jolas bakoitzaren unitate-prezioa, lursaila prestatzea, segurtasun-zorua, adierazpen-kartela, jolasak kentzea, etab.

Aretxabaleta, 2012ko irailaren 24a.

